

KONTROL MOZIOA

“.EUS”domeinuak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Orain urtebete deialdia egin zitzaion euskal komunitateari erakunde, elkarte, enpresa eta norbanakoak beren web orriak, onartu berriko .eus domeinura pasatzeko. Beste erakunde askoren artean Donostiako Udala ere ekimen honetara batu zen, erabaki estrategikoaren garrantziaz jabetuta. Hala, Udalaren “Donostia.org” web orria “Donostia.eus” bihurtu zen eta, horrekin batera, udal langileen posta helbideak etabar. Halaber, udalaren eraginpean diren udal sozietate eta erakunde autonomoak ere prozesu berean sartzen joan ziren, bakoitzak bere berezitasunak izanik, bakoitzak erabakia erritmo desberdinetara gauzatuko duelarik.

Pasa den abenduaren 14ean, Udal Gobernuari interpelatu zitzaion zehazki ea Donostia Kultura EEPko web orri desberdinak .eus domeinura pasatzeko plangintzaren jarraipenaz, azken hilabeteotan izan diren kontraesanak tarteko. Zehazki itaundu zitzaion Donostia Kultura EEPko web orri desberdinak .eus domeinura pasatzeko helburua edukita, plangintzaren beharra aitortua, horrek marka eta logotipoaren aldaketa behar duela onartua, eta, horren ondorioz, horretarako lehen fasean beharko den dirua hornitzeko prestutasuna agertu ondoren, zer dela-eta Udal Gobernuak ez zuen beharra ikusten, edo zer dela-eta ez zuen egin nahi hurrengo faseen aurreikuspena, fase horiek beharko duten diruz hornituz.

Batzordean bertan, Kulturako zinegotzi ordezkari Miren Azkarate Villar andreak eman zituen azalpenak entzunda, lehendik zeuden zalantzak eta kezkez gain, berriak sortu dira. Zinegotzi ordezkariak Donostia Kultura EEPko web orriari begira eginiko bidea gutxietsiz, arazo berriak mahaigaineratu zituen, planoak nahastuz. Horrela, egindako interpelazio zehatzari erantzun ordez, antzeko egoera eduki zezaketen domeinuak, Udaren menpe dauden “dfutura” eta “turismo.com” parekatu zituen, egoera desberdinetan egon arren.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 - EH_Bildu@donostia.eus

Horrez gain, problematika oso desberdinak dituzten domeinuak aipatuz erantzun zuen: Tabakalera eta dss2016koak, zehazkiago, ".eu" domeinua, hau da, beren naturari dagokionez, Europako domeinua aukeratu dutelako.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Udalak erabiltzen dituen domeinuak ".eus" delakora pasatzeko plangintzarekin irmotasunez aurrera jarrai dezala horretarako behar diren neurriak lehenbailehen hartuz.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia